



Arakaldoko jaiei begirada bat **euskararen betaurrekoekin**

Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak! dinamika
2022-2025 Programazioaren azterketa



Aiaraldeko jaietan euskararen presentzia bultzatzeko xedez, azken urteotako programazioa aztertu du Aiaraldeko Euskaingintzaren Kontseiluak. Horrekin batera, *Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!* dinamika bultzatu du, hizkuntza eskubideak bermatu eta euskararen erabilera zabaltzeko nahiarekin hainbat neurri zehatz proposatuz.

Txosten honetan azken lau urteetako Arakaldoko jaietako egitaraua aztertu dugu eta *Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!* dinamikak proposatzen duenaren ildotik, jaietan euskara bultzatzeko neurriak hartzen ote diren behatu dugu. Bi ariketa hauekin egoeraren eta bilakaeraren argazki bat atera dugu, bidean aurrera egiteko ekarpen gisa.



GORA AIARALDEKO JAI EUSKALDUNAK

2024ko apirilaren 24an aurkeztu zen [*Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!*](#) ekimena eta eskualdeko 6 udalek egin zuten bat. Arakaldok uko egin zion parte hartzeari. Dinamikak jaietan euskara bultzatzeko neurri sorta zehatz bat dakar: Txosnetan hizkuntza irizpideak, ostalarientzako gomendioak, karteletan eta esku-orrietan [*Euskararen Semaforoa*](#), euskararen erabilera bultzatzeko mezuak zabaltzeko askotariko materialak, kanpaina instituzionala, kartel zirikatzaileak, esatari euskaldunak...

JAI EGITARAUETAN EUSKARAREN PRESENTZIA NEURTZEN

E

ARAKALDOKO JAIK

2022



Musika emanaldiak

Euskaraz %20

Beranduegi

Elebidunak %40

DJ Portu · Atxurre

Euskararen presentziarekin %20

Moonshine Wagon

Erdaraz %20

Boleros 4

Haurrentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Txikirock

2023



Musika emanaldiak

Euskaraz %0

Elebidunak %0

Euskararen presentziarekin %0

Erdaraz %100

Txarly Usher y los Ejemplares · The Pusherman · Hotel Ruido

Haurrentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Xaibor · Miriki

Helduentzako ikuskizunak

Elebiduna %100

Yogurhina Borova

JAI EGITARAUETAN EUSKARAREN PRESENTZIA NEURTZEN

E

2024



Musika emanaldiak

Euskaraz %50

Gautegun · Etxebarria aita-semeak

Elebidunak %0

Euskararen presentziarekin %0

Erdaraz %50

Patricia Reckless & Pushermen · DJ Azid

Haurrentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Xaibor

2025



Musika emanaldiak

Euskaraz %50

Zutik erromeria · Etxebarria aita-semeak

Elebidunak %0

Euskararen presentziarekin %0

Erdaraz %50

Tributo Marea Extremo · DJ

Haurrentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Xaibor

Helduentzako ikuskizunak


Erdaraz %100

Antxon magoa




BILAKAERA


Musika emanaldiak



Umeentzako ikuskizunak



Helduentzako ikuskizunak



ONDORIOAK ETA ERRONKAK

Azken lau urteotako egitarauak aztertzerakoan hiru aldi bereiz daitezke. 2022an egoera kezkagarria zen, 2023an larri izatera pasa zen eta 2024tik aurrera egoerak hobera egin du ona izatera iritsi gabe. Musikari dagokionez, 2022an euskara hutsez % 20 bakarrik izanik erdara hutsezkoa beste horrenbeste izan zen, gehiengoa elebiduna izan zelarik. 2023an baina, musikaren programazio osoa erdara hutsezkoa izan zen, egoera larria sortuz, euskara guztiz baztertu baitzen. 2024 eta 2025ean egoera nabarmen aldatu da, erdia euskara hutsez eta beste erdia erdara hutsez izan delarik. 2023arekin alderatuta egoera hobea izanagatik ez nahikoa da. Euskararen egoera erdararekiko ez delako parekotasunezko egoera bat, diglosikoa baizik, horrek eskatzen du euskarak babes berezia izatea eta bere presentzia indartzea. Umeentzako eskaintzari dagokionez berriz, egoera ona izan da, lau urteotan programazioa % 100ean euskara hutsez izan baita. Helduen ikuskizunei dagokionez berriz okerrera egin du egoerak, lehen urtean euskara hutsez, bigarren urtean elebidun eta azken urtean erdara hutsezkoa izan delako eskaintza.

Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak! dinamikan parte hartzeari uko egin zion Arakaldoko Udalak eta egin dugun jarraipenaren arabera ez du jaietan euskara bultzatzeko inongo neurririk hartu. Herrian ez da ostalaritzarik baina bai izaten dela jaietan txosna bat. Bertan ez da paisaia linguistikoa zaindu, erdara izan da nagusi eta ez da bermatu euskaldunak euskaraz artatzea. Udalaren karteletan ez da zehazten ezta ekintza bakoitza zein hizkuntzatan izango den.

Euskaldunon ikuspuntutik, Arakaldoko egoera kezkatzekoa da oso. Alde batetik, beharrezkoa litzateke programazioa baliatzea euskararen normalizazioa eta biziberritzea bultzatzeko. Umeen programazioa orain arte bezala mantendu baina gainerakoan euskararen presentzia nabarmen handitu beharra dago. Euskararen irizpidea txertatu behar da programatzerako orduan. Bestetik, kartelean *Euskararen Semaforoa* erabiltzea gomendatzen dugu, euskarari ikusgarritasuna emateko. *Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!* dinamikarekin bat egitea oso positiboa litzateke, euskararen erabilera bultzatzeko eta zenbait lanketa egiteko beharra nabarmena delako. Edonola ere, txosnan euskararen irizpideak ezartzea beharrezkoa da euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko eta paisaia linguistikoan euskara ez baztertzeko.